

SD EIBARREKO PRESIDENTEAREN KOMUNIKATUA

Lehenik eta behin, Eibarko akziodunek Administrari Kontseilu honen eta bere zuzendaritza taldearen gestioari erakutsitako konfiantzagatik eskerrak emateko aprobetxatu nahi dut komunikatu hau, Batzarrean %95 baino gehiagoko babesarekin gestioa onartzeagatik.

Zintzo esanda, presidentetzan trantsizio lasai eta oso profesionala egiteko asmoa neukan, Klubari eskaini ahal nizekion arloetan zentratuz, baina egia esan gauzak oso zail ipintzen ari zatzaizkit.

Mahukak gehiago biltzea tokatuko dela dirudi eta, atseginak ez badira ere, gestionatu beharko diren eremuetan sartu.

Kirol arloan, arlo finantzarioan eta baita gestioaren beste arloetan gauzak ondo doazenean; laneko giroa behingoz aldatu denean eta mundu guztia bere eginkizunetan zentratuta dagoenean, badirudi badirela gutxi batzuk gauzak ondo joatea gustatzen ez zaienak eta nahiago dutenak bazterrak nahastea giroa okertu eta zalantzak sortzeko.

Tira ba, ez dut ez Klubaren ezta nire zintzotasuna modu zuzengabean zalantzan jartzea utziko, akziodunen ordezkariak egin zuen bezala, arduragabekeria legal edo morala ‘ erdi egiekin ’ aipatuz

Klubera heldu naizenetik, eta Presidentea izan aurretik, Barne Kontu-Ikuskaritza Komisio bat, jokabide-kodeak eta kode-etikoa proposatu eta ezarri dut. Jokabide-kodeak ezarri ditugu, salaketa kanal bat zabaldu dugu eta sozietatearen kode-etikoa ezarri dugu baita ere.

Eta aipatutako Barne Kontu-Ikuskaritzari helduta, Klubak azken hiru urteetan egindako gastuen gaineko lan sakona egiten hasi gara, baita Kontseiluko kide bakoitzak egin dituenak ere, honen emaitzak akziodunen eskuetan egongo direlarik landuta dauden momentuan.

Gaur egun edozein konpainia preziatuk bezalako barne-kontrolerako prozedimenduak dauzkagu. Urte asko daramatzat Administrari Kontseilu profesionaletan eta orain ez didate sozietate anonimoen gainean etika klaseak emango.

Hain da horrela, eta datuak eskura ditudala ari naiz, Presidentziara heldu naizenetik modu OSO nabarmenean jaitsi direla Klubaren errepresentazio gastuak. Ni naiz Administrazio Kontseiluan Klubaren kreditu-txartela duen kide bakarra eta aitortu dezaket estreinatu gabe dudala eta ez dudala estreinatzea pentsatzen.

Orain gastuen kontrol osoa daukagu, ezarritako prozedurekin erabakiak apetaz hartu ez daitezten

Hemen denok modu altruistan egiten dugu lan eta ziurtatu dezaket, denon izenean, kargu honek poztasun asko ematen dituela eta baita atsekabe asko ere, eta ez dakit batak bestea konpentsatzen duen.

Baina gaur egun, kargu honek dirua kostatzen dio edozein kontseilariri edo, behintzat, inor ez da onuradun.

Esan izan da, 6 hilabete besterik ez dituen nire agintaldian, Klubeko kontseilariak onuradun izan diren diren hiru kontratu erabaki direla eta, Batzarrean kasuz kasu ondo erantzun direla uste badut ere, egun hauetan gaian sakontzen eta Klubean ezarri diren prozedimendu guztiak zehatz-mehatz bete direla egiaztatzen ibili naiz. Eta ziurtatu dezaket horrela izan dela.

Banan bana aztertuko ditut jarraian.

1. kasua: Ekialde Tribunako lanen azpikontratazioa

Obra eta Segurtasun Komisia, non Agustin Lahidalga ez dago, bildu eta 7 konpainiari eskaintzak eskatzea erabakitzen du. Hautaketa prozesu guztiz profesionala burutu eta erabakia hiru irizpideren arabera hartzen da: kostua, fidagarritasuna eta epea. Prozesuaren amaieran obra Amenabar konpainiari ematea erabakitzen dute. Bide batez, egindako lan onagatik eskerrak eman nahi diet eta horren adibide da obra 2 hilabetez aurreratu izana. Guretzat arlo hori berebizikoa zen arrazoi jakinengatik.

Gu ez gara gure hornitzaileen azpi-kontratazioen erabaki irizpideetan sartzen. Ezta zein aseguru aukeratzten duten, zein sistema informatiko erabiltzen duten, ezta non erosten duten lanetarako burdina. Ez dira Eibarrekin zerikusia duten erabakiak, ez zuzenean ez zeharka.

Ez da ezer izkutatu inolaz ere, dena publikoa eta gardena izan da, Hierros Arrateren kamioiak obran ikusi ahal izan dira eskualdeko beste hainbat obratan bezala.

Kasurik ez dagoela esatea sentitzen dut. Ez legala, ez etikoa, ezta zentzuzkoa ere.

2. kasua: Axa Segurosi azpi-kontratutako aseguruak

Esan izan da nik Klub hau zuzentzen dudanetik aseguruak Mariella Saitz Mikel Larrañagaren emaztearen artekaritzari azpi-kontratatzten zaizkiola. Begiratu egin dut eta Mariellak 2012ko abenduaren 13tik dihardu Eibarrekin lanean. Ni presidentetzara iritsi baino askoz lehenago eta, noski, bere senar Mikel Larrañaga Klubera iritsi baino askoz lehenago. Beraz, beste pertsona batek aukeratua izan da eta ez nik aukeratua. Gure barne-prozedurak dio baldintzak eta horien prezioak hobetzeko berrikusten ditugula aldizka aseguruak, eta baieztatu dezaket profesionaltasun osoz gauzatu dela hori, Axa izanik eskatutako hiru eskaintzetatik lehiakorrena.

Hala ere, konpainiarekin negoziaketa jarri zen martxan prezio hobeago lortuz. Batzarrean aipatu zen kopurua 150.00 €-koa izan zen, **Klubeko barne-nukleoan bakarrik ezagutzen zen kopurua gainera**. Gero, 128.000€-ra negoziatu zen. **Ez dakigu datu hori nola iritsi zen emakume horrengana.**

Utzi ezin dudana da Eibarrek behar duen baino prezio handiagoan azpi-kontratzea zerbitzu horiek. Ez dut kostuetan hobetzeko aukera bat pasatzen utziko gero norbaitek hori bere alde edo kalte egiteko erabiltzeko bakarrik.

Beraz, KASURIK EZ DAGOELA ondorioztatzen dut eta, batez ere, hornitzailea ez dela nire agintaldian sartu, baizik eta aurreko presidentearnean.

3. kasua: ERP sistemaren aukeraketa Solmicrori

Nire agintaldia hasi denetik eman den benetako kontratazio kasu bakarra. Izan ere, modu ezin hobean egin da eta hortaz oso harro nago.

Lehenik eta behin, Klubaren gestioak enpresa kudeaketarako sistema baten beharra erreklamatu du, fakturen mugimenduen hazkunde handia ikusita argia den zerbait, eta Sozietatearen kontrol hobea edukitzeko beharragatik.

Hainbat aukera aztertzen dira eta erabakitzen da Expertis izango dela aztertuko den programetako bat. Lehen momentutik Joseba Unamuno jaunak eskua altxatu eta interes-gatazkan dagoela adierazten du bilera-gelatik irtenez, 2016ko abuztuaren 29ko aktan irakurri daitekeen moduan.

Momentu horretatik aurrera, beraz, edozein informazio motatik kanpo geratzen da eta ez du erabakietan parte hartzen.

Kudeaketa taldeak eta teknikariak sistema ezberdinak aztertzen dituzte eta, Real Sociedad eta Athletic Club futbol taldeetan izan duen aplikazio eta eraginkortasuna ikusiz, non Unamuno jauna ez da kontseilari (nik dakidala behintzat), Expertisen aldeko erabaki argia hartzen da.

Beraz, ondorioztatzen dut interes-gatazka argia dagoela, baina profesionaltasun osoz kudeatu dela.

Eta kontseilari denek, Joseba Unamuno ezik, horrela izan dela esan dezakete, 2016ko abuztuaren 29ko aktan agertzen den erabakian izan zirelako.

Zaila da herri txikia izanik eta herrikoak diren enpresak kontratatzen jarraitzeko barne helburuarekin jarraitu nahi badugu, interes-gatazketan ez sartzea hartu behar ditugun erabaki askotan. Beti egongo da herriko negozioko parte den familiar edo lagun bat, baina ez da ezer gertatzen, garrantzitsuena modu guztiz profesional eta gardenean jardutea da.

Konpainia guztietan egiten den zerbait da eta horregatik dago erregulatuta jarduteko modua.

Gure kasuan hau da jarraitzen dugun prozesua:

1. Interes-gatazka sasoiz antzematen da.
2. Pertsona hori informazio pribilegiatutik eta erabakiak hartetik kanpo geratzen da.
3. Barne-prozedimendu guztiak bete direla ziurtatzen da (hiru eskaintza gutxienez, baldintza berak guztientzat...)

4. Erabakia gardentasunez hartzen da Kontseiluan.
5. Kontseiluko aktan jasotzen da.
6. Prozesu guztian gardentasun osoa bermatzen da. Denak egon behar dira, kudeatzaile zein kontseilari, interes-gatazkaren jakinaren gainean.
7. Kantitatea nabarmena bada, Sozietatearen memorian aipatua izango da.

Hori egin izan da, argi eta garbi, Presidentea naizen momentutik.

Komunikatu honi bueltak bilatuko dizkietenak edo baieztatzen ari naizena sinistuko ez dutenak egongo direla dakidanez, Konplimendu Organotik jasotako txostena eransten dut, non egindako kontratazioak zuzenak direla eta behar den moduan justifikatuta daudela azaltzen den.

Fede txarrarekin ekin dute eta, nire iritziz, lerro gorri bat igaro dute Kluba kaltetu nahian eta erlazionatutako pertsoneri min handia eginez

Azpimarratu nahi dut Hierros Arratek Obegisari materiala eman ziola Ipar Tribuna eraiki zenean eta Axako Mariella Saitz Klubeko aseguru hornitzailea zela 2012tik, hainbat kasutan aurreko Presidentearen agintaldian, eta horrek ez zuen inongo Akziodunen Batzarrean akziodunen atentzioa deitu. Zergatik orain bai?

Inork muntaia azpi-kontratatu honetan parte har ez dezala eskatzen dut, eta ez jarraitzea erdi-egi eta metodo populista hauen joerari orokorrean.

Eibar bere kirol arrakastengatik eta gizarteari ematen dion ekarpen positiboarengatik agertu behar da komunikabideetan, ez telebista platoetarako aproposagoak diren muntaiengatik.

Gainera, norbaitek edozein momentutan zalantza, galdera edo iradokizunik badauka, pozik gaude ekarpenak egin edo sortu daitekeen edozein zalantza argitzeko, beti ere konstruktiboa bada, eta fede txarrean oinarritzen ez denean edo Klubaren arauak urratzen ez direnean.

Hauteskunde kanpaina apirilean hasten da eta ez orain

Gauzak ondo egiten ari direla baieztatzen dut eta gaur egungo Kontseiluko inor ez dagoela onura pertsonalik ateratzen. Akziodunak trankil egon daitezke Kluba inongo interes pertsonalik gabe kontrolatzen eta kudeatzen ari garelako. Espero dut Kontseiluan bere momentuan gure tokia hartzen dutenek horrela jarraitzea.

Bitartean, eta errepikatzen dut, espero dut Eibarri buruzko albisteak kirolaren edo gizartearen ingurukoak izatea eta, guzti horiek, arrazoi positiboengatik. Ez gaitzela berriro horrelako gaiekin irten behar eta, batez ere, argitu den momentutik, gaia amaitutzat eman **eta kaltetutako pertsonak ordaina jasotzea.**